

Laudion, 2024ko uztailaren 9an

Udalak aurrekontu kolaboratiboak aurrera atera ditu aurrekontua ia 3 milioi eurotan handituz

Aurrekontu-paketeak herritarrek, udaleko teknikariek eta Udala osatzen duten gainerako alderdi politikoek proposatutako inbertsio materialak eta sozialak jasotzen ditu

Atzoko ezohiko bilkuran Laudioko Udalak apirilaren 15ean indarrean sartutako aurrekontu teknikoa osatu zuen 2.928.998,99 euroko bi aurrekontu kredituen onarpenarekin; akordio politikoak, arloen behar teknikoak eta azarotik herritarrekin landutako proposamenak jasotzen dituztenak, hau da, aurrekontu kolaboratiboetan proposatutako inbertsio materialak eta sozialak. "*Aurrekontu kolaboratiboak gure udalerriko indar politiko, herritar eta eragile sozial, kultural eta ekonomikoekin lortutako akordioak jasotzen ditu; eta ekainean aurkeztu eta ebatzi zen Toki Kontseiluan, 2023ko likidazioa 2024ko aurrekontuan sartzeko*", zehaztu zuen Ainize Gastaka alkateak.

Laudioarren aldetik, lehen aurrekontu kolaboratibo hauetatik 35 ekarpen jaso dira, 1.235.000 euroko balioarekin. Gainerako aurrekontuarekin PSErekin aldez aurretik adostutako akordio politikoak, Udalbatzaren proposamenak eta arloen behar teknikoak jarriko dira martxan konprometitutako proiektuez gain; Lamuza, Latorro eta Aretako eskoletako obrak, Gaztelekuko inbertsioak, amiantoa kentzeko lanak, kiroldegiko argiztapena, eskolako patioetan proiektu inklusiboak garatzea edo herriko asfaltatze lanak, besteak beste.

Horrela, aplikazioen arabera, aurrekontuaren gainerakoa honela banatuko da: 190.940 euro proiektuen idazketara bideratuko da, 331.000 euro argiztapenerako, 388.000 euro kirol-instalazioetarako, 120.000 euro Audio Groupek proposatutako proiektuetarako, 569.723,99 euro Lamuza, Areta eta Latorroko eskoletan inbertituko dira, 70.000 euro amiantoa kentzeko, 300.000 euro asfaltatze-laneratarako eta 230.000 euro haur-parke berriak sortzeko eta daudenak eraberritzeko. Era berean, hiri-altzariak berrituko dira (16.700 euro), Gaztelekura 150.000 euro bideratuko dira eta patio inklusibo berriak bultzatuko dira 100.000 euroko inbertsioarekin. Tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko 60.000 euro erabiliko dira, eta beste 66.000 landa-garapenerako. Halaber, 50.000 euro inbertituko dira berdintasun-politiketan, eta 167.000 euroko partida bat gordeko da sistema informatikoa berritzeko.